

EAJREN EGITASMO JUDIZIALAREN BERRI EMAN ZUEN ABOKATU EUSKALDUNEN SINDIKATUAREN EZBAIGUNEAN

Epaile askok euskara «mespretxuz» hartzen duela salatu du Arzalluzek

■ «Independentziaren zain egon gabe», epaileek euskal herritarren izaera eta hizkuntza ezagutu behar dutela adierazi du


■ Fiskaltza Nagusiak Gasteizko Legebiltzarraren ardurapean egon beharko lukeela uste dute abertzale jelkideek

■ Laugarren txandan ere «galbehea» dagoela salatu du eta, ondorioz, zaila dela bide horretatik epaileen artean euskaldunak sartzea

Íñigo Bilbao / Bilbo

EUSKAL HERRIAN diren epaile espainiarrek, gehienek behinik behin, ez omen dute euskaraz ikasteko inolako asmorik eta askok «mespretxuz» hartzen omen du euskal hizkuntzari lotua den oro. Hori xe salatu du Xabier Arzalluz EAJko buruak Abokatu Euskaldunen Sindikatuak antolatutako mintzaldian.

Berez «euskal Justizia propioari» buruz mintzatu behar bazen ere, Arzalluz egungo egoeraz aritu zen, eta joan den asteburuko Batzar Nagusian jelkideek Justizia alorrean hartutako erabakien berri eman zuen. Horren arabera, «independentziaren zain egon gabe», TOP (Francoren garai-ko Ordena Publikorako Auzitegia) zenaren oinordeko den Entzutegi Nazionala desagertadadila nahi dute jelkideek, entzutegi bereziak ez baitira, Arzalluzen ustez, «demokraziaren seinalerik onena». Eliza ordezkarietara eskatzen zaien bezala, epaileak ere lekuan lekuko pentsamoldeak, izaera eta hizkuntza menperatuko duen jendea izan daitezela aldarrikatzen du EAJk.



XOUSE SIMAL

Abokatu Euskaldunen Sindikatuak gonbidaturik mintzatu zen Xabier Arzalluz atzo Bilbon.

Eguno Justizia «funtzionarizatuak» ez du, Arzalluzen hitzetan, aldaketarik egiteko modurik ematen. Haatik, Euskal Justizia Kontseilua-

ren premiaz mintzatu zen, «oposizio-bideak aldatu eta bertoko jendea promozionatzeko».

Fiskaltza Nagusiak, bestal-

de, Gasteizko Legebiltzarraren menpe beharko lukeela uste du Arzalluzek. Dotrina Batasunaren jagoleak Madrilen egon daitezkeen arren,

kasazioak eta justizia penalak euskal agintarien ardurapean egon behar duela gaineratu zuen Arzalluzek.

Diskriminazioa

Are zorrotzago aritu zen epaileek euskaldunak izan behar dutela aldarrikatzerakoan, egungo egoeran euskal hiztunak «diskriminaturik» daudela uste baitu buruzagi jelkideak. Aldarrikapen horiek denak zelan gauzatu? «Hori beste gako bat» dela esan zuen Arzalluzek.

Entzuleen artean, Leopoldo Lejarreta abokatu euskaldunak egungo egoera gaitzetzeko Euskal Herrian Eskola Judiziala sortu eta IV Txandaren bidez epaileen artean jende euskalduna sartzea proposatu zuen. Asmoarekin bat etorri arren, IV Txandan ere «galbehea» dagoela salatu zuen Arzalluzek, «eurek ere [agintari espainiarrez ari zen] badakite eta zer dagoen jokoa». Orduantxe, euskararen egoera hizpide zuela, egin zituen Arzalluzek hitzik gogorrenak egungo «egoera benetan inpresentablea» dela azpimarratuz.

Auzitegi Konstituzionala

«Espainiaren handitasuna xede duen egitura horrek mesfidantza eragiten du»

■ «ZAILA da gutxiengo nazional batek gehien- goak osatutako epaimahai baten erabakiak onartzea». Horixe dio Carl J. Friedrich irakasleak, Europako unibertsitateetan Zuzenbide Politikoan aditu diren *biblia* (*Denbora berrietako Estatu Konstituzionalak*) idatzi zuen irakasle alemaniarrek, alegia. Bat dator Arzalluz tesi horrekin, batez ere Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren

osaketa eta eginkizunak aztertu ondoren.

Izan ere, «Espainiaren handitasuna» xede duen auzitegi horrek euskal herritarren artan «mesfidantza» besterik ez duela eragiten salatu zuen buruzagi jelkideak.

Bertan euskaldunak ez dagoen artean, edo katalanak, kasu, nekez lortuko du egitura horrek «neutraltasuna gordetzea», EAJko buruaren ustez. Eta hori horrela izango da, bai-

ta estatu eredu liberalena nagusitzen bada ere, arazoaren muina, azken batean, Estatua hainbat naziok osatzen dutela ez onartzea baita.

Irtenbidea zein den? Arzalluzek Belgikaren kasua jarri zuen eredu, Estatu federala izateaz gain, nazio desberdinek osatua baita, eta bertako Auzitegi Konstituzionalak barioez eta flandriarrez, erdi bana, osaturik dagoelako.

Etorkizuneko Euskal Justizia

«Beldur naiz ez ote dugun Madrilen dagoenaren kopia ziztrin bat egingo»

■ ETORKIZUNAZ ere mintzatu zen apur bat jelkideen burua, eta hauxe adierazi: «Gauza askotan guk ere errua badugu». Izan ere, duela hogeita urte Estatutuaren ondorioz egitura autonomikoak sortu behar izan zirenean, Euskal Herriaren historia aztertu eta bertoko egiturak oinarritzat hartu beharrean, «Madrilen zegoenaren kopia ziztrin bat besterik ez genuen egin», Arzallu-

zek azpimarratu zuenez.

Euskal Justizia erakitzeke ere, Euskal Herriko etorkizuneko agintariak nondik nora jo beharko duten aurrikusterakoan —«nik behintzat geure buruaren jabe izango garela espero baitut», azpimarratu zuen Arzalluzek—, kezkatu agertu zen Euzkadi Buru Batzarreko lehendakaria.

«Beldur naiz gai honetan ere, momentuko estatusunak behartu-

rik ez ote dugun beste kopia bat egingo», gaineratu zuen.

Mintzaldian zehar, bestalde, Foru Zuzenbide desberdinek dituzten berezitasunak aztertzeke premiaz aritu zen Arzalluz. Eguno ildo konstituzionalistak zertan diren eta nondik nora doazen ikusirik, *Habeas Corpus* bezalakoak, esaterako, aspaldian jasotzen zirela Bizkaia eta Gipuzkoako foruetan, gogoratu zuen.